



## Adrián Celaya Ibarra

Foru Zuzenbide Zibil eta Autonomikoko katedradun emeritua

"Eusko Legebiltzarrari Euskal Foru Zuzenbide Zibilari buruz aurkeztu diogun aurreproiektua lege bihurtu edo ez, guk lanean jarraitu behar dugu"

**Adrián Celaya Ibarra** 1917. urtean jaio zen, Barakaldon. Maisutza ikasketak amaitu bezain laster, gerra zibilak harrapatu zuen. Zuzenbide ikasketak Madrilén egin, eta epaile bilakatu zen. Galdakaoko eta Bilboko Epaitegian aritu zen lanean. María Cruz Ulibarriekin ezkondu, eta lau seme-alaba izan zituzten. 1951n, Deustuko Unibertsitatean Nazioarteko Zuzenbide Pribatua eta Zuzenbide Zibila irakasten hasi zen. 1965ean *Conflictos de leyes civiles en Vizcaya* doktore tesia aurkeztu zuen Madrilgo Unibertsitate Zentralean. 1976an, Justizia Ministerioak Kodifikazio Batzorde Nagusiko kide izendatu zuen, eta 1985ean Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiko kide. 1981etik 1983ra bitartean, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte zuzendaria izan zen. Epailletza utzitakoan, Deustuko Unibertsitate itzuli zen, Zuzenbide Zibila irakastera, eta irakasle emeritu izendatu zuten bertan. 1995ean, Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion. Idatzi dituen liburuen artean, aipatzekoak dira, besteak beste, *Vizcaya y su Fuero Civil* (Iruñea: Aranzadi, 1965); *Compilación de Vizcaya y Alava* (Madril: Edersa, 1978); *Derecho Foral y Autónomo Vasco* (Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1984); *Derecho autonómico vasco* (Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1992) eta *Derecho civil vasco* (Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1993).

### 1.

Zure bizitzari gainbegirada bat emanez ekin diezaiokegu elkarrizketari. Xehetasunak ezagutu nahi dituenak, ostera, jakin beza autobiografia bat argitaratu zenuela...

Duela zenbait urte, Eusko Ikaskuntzak Lekuona saria eman behar zidala-eta, nire oitzapenak jaso eta idatziko zituen norbait bilatzeko eskatu zidaten. Baina nik ez neukan nire iragana inori kontatzeko gogorik, eta lan hori neronek egitea erabaki nuen. Saria jaso duen pertsona bakoitzeko biografia bana argitaratzen dute, eta bilduma horretan dago nirea ere.

### 2.

Hezkuntzarekiko interes berezia azaldu duzu beti.

1933 eta 1936 artean, Maisutza ikasketak egin nituen Errepublikako Plan Profesionalean. Oker ez banago, Plan hori Institutio Librean oinarrituta zegoen, eta oso berritzailea zen, zeren eta ordura arteko Maisutza ikasketetan kultura orokorra eta ikasgai pedagogiko pare bat besterik ez ziren irakasten. Zenbatez hobea zen gure batxilergoa! Guri, zorionez, ekonomia, filosofia, psikologia, paidologia eta diziplina guztietako metodologiak irakatsi zizkiguten, eta ikuspegi zabal horrek hezkuntzaren arazoak hobeto ulertzen lagundu zigu.

Oposizioak gaintuz gero, ikasketak amaituakoan lanpostu bat izateko eskubidea ematen ziguten. Aitoru beharra daukat ez neukala ikaske-ta horiek egiteko bokaziorik, baina kontuan hartu behar da hamasei urte neuzkala eta klaseko gazteena nintzela. Adin horretan ez dela batere zaila aurrean jartzen dizutenarekiko interesa piztea. Ordudanik, asko maite dut hezkuntza. Baina ez dezagula pentsa heziketa ematea eskolatzera mugatzen denik. Bi gauza ezberdin dira.

### 3.

Nola gogoratzen dituzu gerrako urteak?

Txikitandik, eta ia hogeita hamar urte bete arte, gaixotasun arraro bat izan nuen, hiruzpalau hilabetero ohean aste bete ematera behartzen ninduen. Baina gaixotasun horrek egoera askotatik libratu ninduen: Gordexola batailoitik atera ninduen, berari esker beranduago sartu nintzen eremu nazionalan, eta Ebroko frontetik une erabakigarri batean atera nintzen. Orain, urteek ematen duten distantziak begiratuta, Jainkoari eskerrak ematen dizkiot gaixotasun horrengatik, diziplina izaten erakutsi zidalako, bai fisikoki –egun askotan dieta egin behar izaten nuelako–, bai espiritualki –bakardadean igarotako tarteetan hausnarketak egiteko ohitura hartu nuelako–.

Dena den, gerratik fisikoki onik atera banintzen ere, moralki lur jota amaitu nuen, eszeptizismoz betea, fedea kolokan nuela. Utzi egin nion erlijio katolikoaren ospakizunak jarraitzeari. Nire ustez, Barakaldon biltzen ginen ikasle talde bati esker atera nintzen egoera horretatik. Askatasun osoz mintzatzen ginen, beldurrik gabe, ziurtasunez. Askapenaren egun handia hurbil zegoela pentsatzen genuen, eta egun hori iristerako prest egon behar genuela esaten genion geure buruari.

Gerraostean, Sestaoko lagunak pozez zoratzen jarri ziren Acción Católica-ko langileen mugimendurekin, eta ni ere poztu egin nintzen, baina ez dut uste bizitza osoan desilusio handiagorik eraman dudarik.

### 4.

Eta gerra bukatutakoan...

Ikasketak egin eta oposizioak gaintu nitue-nez, lanpostu bat eskuratu nuen. Baina Hezkuntza Delegaziora joan nintzenean, gure Planeko ikasleak mamuak bezalakoak ginela konturatu nintzen. Gure aurretik behin-behineko milaka alferiz ipini zituzten; Gobernuak, inolako probarik eginarazi gabe, maisu-maistra izendatu zituen. Arazketa bat egin zuten, eta ni gudari ohia izateagatik salbatu nintzen, baina nire lagun Picaza egotzi egin zuten, eta Del Hoyo hamabi urterako deserriratu. Gobernuak, gainera,

ez zuen soldata eta lanpostua gordeko zigunaren promesa bete.

Soldadutzan luzapen bat eman zidatenez, Madrilera joan nintzen, Ministerioak antolatutako ikastaro trinko batzuk egitera, eta aitak hiru mila pezeta eman zizkidan han bizi eta pentsio bat ordaintzeko. Nire asmoa Pedagogia Fakultatean matrikulatzea zen, baina, Errepublikaren fruitu bat zenez, itxi egin zuten. Neska batek –denborarekin nire suhiaren ama izango zenak–, jada Pedagogiako kurtso bat egin zuenak, Zuzenbide Fakultatean matrikulatzea aholkatu zidan, ikasketak egiteko orduan askatasun handiagoa izango nuelako. Eta kasu egin nion.

### 5.

Horrela sartu zinen, bada, Zuzenbidearen munduan. Bereziki Euskal Foru Zuzenbideari zuzendu diozu arreta...

1946an epaile lanetan hasi nintzen, eta 1951n Deustuko Unibertsitatean eskolak ematen. Irakasle lanak hezkuntzaren arloan neuzkan ametsak betetzeko aukera ematen zidan. Dena den, bi arloetan ilusio handiarekin aritu naiz lanean.

Epaile nintzela pasa zidaten lehendabiziko kasua oso problematikoa izan zen. Landa Errentamenduen Legea aplikatuz, akuraturata zeuden baserrietatik maizterrak botatzeko aukerari buruzkoa zen. Maizterren aldeko epaia eman nuen. Eta, orain, epai hura gogoratzean, erabaki zuzena hartu nuela iruditzen zait. Epaiak oihartzun handia izan zuen. Nik uste dut horrengatik lekualdatu nindutela, epaia eman eta ia berehala, Bilboko Epaitegi batera.

Deustuko Unibertsitatean eskolak ematen nituenean lan ugari egin nituen; ekarpen batzuk apunteetan jaso nituen, eta beste batzuk liburuetan. Unibertsitario batzuek gai hau erdeinatu egin badute ere, niri beti interesatu zait unibertsitateko didaktika.

Gutxi gorabehera, Zuzenbide ikasketak egin ari nintzenean hasi nintzen Euskal Zuzenbidea aztertzen. Harrigarria iruditzen zitzaidan Kode Zibilak, kontuan izanik lurraldeei ez diela erreferentzia bakar bat ere egiten, 10. artikuluko hirugarren paragrafoan bizkaitarrak eta Bizkaiko Forua aipatzea. Doktore tesia horri buruz egiteko gogoia sartu zitzaidan, eta konturatu nintzen arlo hori basamortu baten modukoa zela, deus ere landu gabea. Zuzenbide Zibila eta Nazioarteko Zuzenbide Pribatua ere aztertu nituen, baina ezerk ez nau Euskal Zuzenbideak, nire herriko Zuzenbideak, bezainbeste erakarri.

Deustuko Unibertsitatean Foru Zuzenbideari buruzko Mintegi bat antolatu nuen, Euskal Gaien Institutua eratu nuen, eta Foru eta

Autonomia Zuzenbideko katedra bat ere sortu nuen. Katedra horretaz ni neu arduratu nintzen Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiko kide izendatu ninduten arte.

Gehiegizkoa da ni fundatzaile modukoa izan naizela esatea. Nik egin nuen gauza bakarra, Zuzenbide Zibilaren itsaso zabaleko zati txiki bat lantzea besterik ez zen izan. Dena den, poz handia ematen dit gaur egun arlo horretan zenbat jende dabilen ikusteak.

## 6.

Egungo legetariei dagokionez, zer-nolakoa iruditzen zaizu Foru Zuzenbide Zibilean jasotzen duten prestakuntza?

Ziur aski, prestakuntza kaskarra jasotzen dutela esango dudaren esperoan egongo zara. Ezin dut esan prestakuntza aparta daukatenik, baina gure unibertsitateei aintzatespena berandu eman izanak badu zerikusirik hemengo berezko erakundeei buruzko azterketekin aurreratu ez izanarekin. Foruak, gaur egun, karlistek ikusten zituzten modu berebean ikusten ditugu, ikuspegi erromantiko batekin. Ia ez dakigu deus ere gure antzinako ohitura zaharrei buruz, gure instituzio pribatuei, eta, batez ere, publikoei buruz.

Autonomiari eta independentziari buruz hitz egiten da, baina arreta handiagoa eskaini beharko genioke XV eta XVI. mendeetako euskal gizarteari, eskuzabaltasuna aldarrikatzen zuenari, elizate, kontzeju eta Batzar Nagusiak demokraziarako eredu zirenko garaia.

Hitzak berreskuratu egin ditugu, baina ez diegu edukirik eman. Batzar Nagusien osaketak aho zabalik utzi nau. Porrusalda galanta da. Lotsa ematen dit Gipuzkoa eta Bizkairako eraentza berezi bat aztertzen ari zen Batzordearen aurrean, Batzar Nagusiak berreskuratzeko proposamena neronek aurkeztu izanak. Martín Villak ideia hori hartu, eta berehala desnaturalizatu egin zuen.

Ez dut uste unibertsitateetan gauza horiek irakasten dituztenik. Baina hezten duena ez da unibertsitatea bakarrik, baizik eta, batez ere, gizartea, komunikabideak, alderdi politikoak eta abar, eta ez zait iruditzen garai bateko demokrazia berreskuratzearren inolako ahaleginik egiten ari direnik.

## 7.

Zehazkiago, unibertsitateetan ematen den prestakuntzari gagozkiola...

Ez dakit irakasle ona naizen edo ez, baina argi daukadana da beharrezkoa dela unibertsita-

## “ Zuzenbide ikasketak egiten ari nintzenean hasi nintzen Euskal Zuzenbidea aztertzen ”

tea –eta gurea bereziki– ikuspegi kritiko batetik begiratzea.

Ziur nago gure seme-alabekin hobera egingo dutela gure unibertsitateek, baina ez da lan erraza izango, eta, beharbada, baketsua ere ez. Unibertsitateak ez luke besoak gurutzatuta eta bere buruari kritikarik zuzendu gabe egon behar. Espainiako unibertsitateek, XVIII. mendean, hain zuzen ere beren buruari bilduta egoteagatik egin zuten gainbehera. Eta, nik uste, beste geldialdi batean sartzen ari garela.

Nire lankide askoren iritzian, unibertsitatea- ren oinarria ikerketa da. Ni ados nago ikertzearekin, baina unibertsitatearen helburu nagusia profesional onak prestatzea da. Eta unibertsitatean prestatzen diren abokatuei ez zaienean azaldu ere egiten zein den Bizkaian indarrean dagoen Zuzenbidea, zerbait oker dagoenaren seinale. Alderdi horretan, Deustuko Unibertsitatea zuzen jokatzen ari da.

Nolanahi ere, unibertsitateak gehiago begiratu beharko lioke kalean gertatzen denari eta, batez ere, gizarteak eskatzen dionari. Ulergaitza egiten zait abokatu batek hain modu mugatuan jardutea. Ea gabezia hori konpondu eta abokatuak edozein sistema juridiko interpretatzeko gauza bihurtzen diren.

## 8.

Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak behar bezainbeste aurreratu al dute beste unibertsitateen aldean?

Euskal Zuzenbide publiko eta pribatua aztertzeari dagokionez, Deustuko Unibertsitateak asko aurreratu du. 1970 inguruan, Foru Zuzenbidea oraindik ia ezagutu ere egiten ez zenean, Deustuan Euskal Gaien Institutua sortu genuen, Kultura diputatuari esker. Eta hiru kate-

**“ Foru Zuzenbideak Zuzenbide Zibileko katedretan jasota egon beharko luke. Bilboko abokatu batzuek ez dakite komisario bidezko testamentua zer den ere. Zer edo zer aurreratu da, baina gutxi ”**

dra zabaldu genituen: Zuzenbide Zibilekoa, neronek neramana; Euskal Historiakoa, Andrés Mañaricúak zeramana; eta Euskarakoa, Alfonso Irigoyenek zeramana.

Beste pauso garrantzitsu bat, ia irakasle guztiek Euskal Zuzenbideari buruzko Katedra bat zabaltzeko errektoreari zuzendutako eskaria sinatzea lortu nuenean eman genuen. Baiezkoa eman zigunean, katedraren ardura neuk hartzeko eskatu zidan. Epaitegian lanez gainezka nenbilela eta eskolak emateari utzi egin beharko niola esan nion, baina, azkenean, Unibertsitatean jarraitu nuen, ezin bainuen egindako lan guztia pikutara bidali. Horregatik, Zuzenbide Zibilari eta Zuzenbide Publiko estatutarioari buruzko eskuliburu bana prestatu nituen, lanean jo eta ke, lipotimiak eta guzti izan arte.

Aurreratu da, bai, baina halere asko falta da. Nire iritzian, Foru Zuzenbideak Zuzenbide Zibileko katedretan jasota egon beharko luke. Onartezina iruditzen zait Bilbon Zuzenbide Zibila azaltzen ari den irakasle batek, testamentuaren gaira iristean, Foru Zuzenbideak berezkoak dituen testamentuak aipatu ere ez egitea. Bilboko abokatu batzuek ez dakite komisario bidezko testamentua zer den ere. Zer edo zer aurreratu da, baina gutxi. Beste hainbeste Zuzenbide Autonomikoari dagokionez. Zuzenbide Autonomikoaren katedra ez zait nahikoa iruditzen. Zergatik ez diote administratibistek Euskal Estatutuari merezi duen denbora guztia eskaintzen? Benetan, nire ustez ez da behar bezainbeste aurreratu.

**2.**

Zein da zure iritzia Kataluniako Kode Zibilari dagokionez?

Horri erantzuteko, lehenik eta behin ikusi beharko genuke zer den Katalunia, eta zer den eta zer izan den Euskal Herria. Euskal Herrian Kode Zibil bat egitea erokeria izango litzateke, baina Katalunian ez.

Kataluniako Erreinua Aragoiko Koroan sartuta egon zen. Baina Aragoi erreinuen federazio moduko bat zen –Erregeak Zaragozan, Bartzelonan, Valentzian edo Perpignanen egiten zien Foruei zin–, eta Errege-erreginek Kataluniari bere legeria eta erakunde publiko zein pribatu propioak izaten utzi zioten. Fernando Katolikoak Nafarroari ere eman zion baimen hori, Aragoien sartu zenean. Kataluniak subiranotasuna izango balu bezala jardun zuen, eta erakunde guztiak arautzea erabaki zuen. Hutsuneak zeuden kasuetan, ordezko Zuzenbide modura ez zuten Gaztelako Zuzenbidea aplikatzen –ez zeukalako Kataluniakoarekin zerikurisik–, baizik eta *ius commune* edo Zuzenbide Erromatarra. Horregatik daude Katalunian erakunde erromatar batzuk hain errotuta; hainbeste, ezen horietako batzuk katalan bihurtu direla. Gogora dezagun Savignyk Zuzenbide alemantzat hartzen zuela Alemanian errotuta zegoen Zuzenbide Erromatarra.

Bizkaian, aldiz, Gipuzkoan eta Araban bezala, XV. mendeaz geroztik Gaztelako Zuzenbidea aplikatu zen, Foruan espresuki araututa zeuden kasuetan ez beste. Kontratuen arloan, esaterako, Gaztelako Zuzenbidea aplikatzen zen, oso-osorik. Ordezko Zuzenbidea Gaztelakoa zen.

Familiaren Zuzenbidean egoera konplexuagoa da, Napoleonen garaian formulatutakoak ez duelako garai hauetarako balio. Familia Zuzenbideak, gaur egun, ezin du ezkontzaren deseginezintasunean, seme-alaben legitimitatean eta abar oinarritu. Seme-alaben legitimitatearen kontua, adibidez, astakeria hutsa da, Errege guztiek izan dituztelako gerora aitortu edo onartu egin dituzten seme-alaba naturalak. Zuzenbide katalanaren ezaugarri bat hori bera da: frankismoaren garairik gogorrenetan ere, beti mantendu duela aitatasuna ikertzeko eskubidea.

Euskal Kode Zibil bat egitea, hutsetik sortzen hastea litzateke, baina Katalunian ez, han dauzkaten berezko erakundeek Zuzenbide Zibil osoa hartzen dutelako.

# 10.

Egitasmo berrien artean, partaide zaituen Zuzenbidearen Euskal Akademia aipatu behar dugu. Zein da Akademia honen egitekoa?

Zuzenbidearen Euskal Akademia duela gutxi sortu da, baina horrelako akademia bat sortzeko ideia aspaldikoa da. Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin egindako Kongresuan Legegintza eta Jurisprudenziazako Akademia bat sortzeko egitasmoa aurkeztu zen, baina orain aldatu egin dugu hasierako asmo hori, ez dugulako Akademia berria kide osoen aginduetara eta Administrazioak bultzatuta egoterik nahi; ekintzen protagonistak bazkideak izatea nahi dugu. Eredu gisa, ehun urtetik gora dituen Bilboko Medikuntza Zientzien Akademia hartu dugu.

Estatutuen bigarren artikulua dioen bezala, gure asmoa "Zientzia Juridikoak aztertu, ikertu eta zabaltzea da, eta, bereziki, Euskal Zuzenbidearekin lotuta daudenak". Gure prestakuntza juridikoaren kalitatea hobetzeko, eta gure ikuskera juridikoa garbitu eta garatzeko, azterketak egiteko eta debateak bultzatzeko foro bat sortu nahi dugu.

Hasierako une hauetan pauso irmo batzuk eman ostean, pixkanaka-pixkanaka sail batzuk sortzen joango gara. Datorren urtean, esaterako, bi jarriko ditugu abian: Zuzenbide Zibileko Saila eta Zuzenbide Fiskalekoa.

Zoragarria izango litzateke Donostian eta Gasteizen ere Akademia honen zentroak sortzea, Estatutuen 22. artikuluan aurreikusita dagoen bezala. Horri dagokionez, Eusko Ikaskuntzari buruz pentsatu nuen gauza berbera pentsatzen dut: zentro horiek autonomia handia izan beharko luketela. Nolanahi ere, elkarren artean puntu batzuk zehaztu beharko litzukete, eta Zuzendaritza Batzordearen esanak bete. Garrantzitsuena, dena den, gure inguruko legelariak elkar babestea eta lankidetzan aritzea da.

# 11.

Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legean aldaketak sartu beharko liratekeela entzuten hasiak gara. Nola jardun beharko litzateke Adrián Celayaren iritzian?

1992ko Legea oso aurrerapauso garrantzitsua izan zen, baina lehenengo pauso bat besterik ez zen izan. Ez dugu ahaztu behar nagusiki Bilbon prestatu zela, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin, eta, denok gogo biziz jardun bage-nuen ere, Gipuzkoa eta Arabako Zuzenbidea kan-

poan gelditu zela, ez genuelako bertako legelarien lankidetzarik jaso. Zoritxarrez, Álvaro Navajas, ohitura gipuzkoarren ikertzaile eta bultzatzaile handia, lagun mina zuena, urte gutxi batzuk lehenago hil zen.

Lehendabiziko pauso hori eman ondoren, aurrera jarraitu beharra zegoen. Hortaz, 1999ko abenduaren 27an, nik zuzentzen nuen taldeak, Korporazioen laguntzarekin, Euskal Zuzenbide Zibilaren aurreproiektu bat aurkeztu zion Eusko Legebiltzarrari. Aurreproiektu horrek Gipuzkoa eta Arabako ohiturak ere biltzen zituen. Gero, ukitu batzuk eman genizkion. Orain Eusko Legebiltzarraren esku dago. Dena den, aurreproiektu hori lege bihurtu edo ez, guk lanean jarraitu behar dugu, ikerketa historikoa eginez, aztertzen jarraitzeko gogo biziz, eta noizean behin uste baino zailagoak izaten diren lanak egiteko behar bezainbesteko bizkortasunaz. Nolanahi ere, onartu beharra daukagu 1992ko Legearen inguruko informazioa gehiago zabaldu behar zela, jendeak hobeto ezagutu zezan.

# 12.

Nola ikusten duzu Eusko Ikaskuntza Foru Zuzenbidearen arlo honetan?

Harreman estua izan dut Eusko Ikaskuntzarekin. Oso keinu polita iruditu zitzaidan on José Miguel Barandiaranek trantsizioaren ostean Eusko Ikaskuntza nolabait berregituratzeko sortutako batzordean parte hartzera gonbidatu izana. Harro nago Gasteizko Batzarrean Estatutuak erreformatzeko proposamena defendatu izanaz, eta Zuzenbide Saileko lehendabiziko presidentea izateaz –gero Álvaro Navajas Laporte lagunak hartu zuen nire lekukoa–. Duela zenbait urte, gainera, Eusko Ikaskuntzako presidente izateko gonbita luzatu zidaten, baina indarrez makal samar nembilela-eta, ez nuen proposamena onartu.

Eusko Ikaskuntzak beti bultzatu du Euskal Zuzenbide Zibila. Bilera askotan izan naiz Donostian, 1992ko Legea onartu baino lehen eta behin onartu ondoren, eta, arrakasta handirik izan ez badut ere, legelari gipuzkoarrak gure ekimenera hurbiltzen saiatu naiz. Zalantzarik gabe, lan honetan oso kontuan hartu beharrekoa da Eusko Ikaskuntza.

Gogoan dut Euskal Estatutua prestatzen ari ziren garaian Euskaltzaindiak euskararen erakunde kontsultiboa izenda zezatela eskatu zuela, eta nik Aita Villasanteri adierazi nion kulturaren arloan erakunde batek ez, baizik eta guztiek hartu behar zutela parte. Halako kultur ekimen eskerga batean, erakunde bakar batek ere ez luke kanpoan gelditu behar. Denek hartu beharko lukete parte.

Azkenaldian Eusko Ikaskuntzatik urrun samar nabil, gidatzeari utzi nionetik beste batzuek eraman behar izaten nautilako Donostiara, baina ez daukat ahaztuta nik baino askoz ere merezimendu gehiago zeuzkatenen artean aukeratu eta Lekuona saria eman zidanekoa. Ziur aski, erabaki hori hartzerakoan erabakigarria izan zen beraiekin lanean eman nuen denbora.

## 13.

Lurraldetasunaren zein erakundeen aldetik eragozpenak egon eta harrobia txikia izan arren, begi onez ikusten al duzu Foru Zuzenbide Zibilaren garapena?

Sekula ez diot nire herriaren funts edo mamiari muzin egingo, nahi adina zailtasun egonda ere. Etorkizunean zer gertatuko den jakiterik ez dago, baina garbi daukadana da sekula ez dudala amore emango. Espero dut jarrera honek izango duela jarraitzailerik nire ikasleen artean. Mundua fedeaz daukatenek mugitzen dute.

Lurraldetasunari dagokionez, Gipuzkoa eta Araban ideia hauek ez dira gehiegi errotu, baina badira gure asmoarekin bat egin duten zenbait pertsona. Oraingoz gutxi dira, baina biharko egunean askoz ere gehiago izango dira.

Ez zait iruditzen euskal erakundeetan eragozpen "instituzionalak" dauzkagunik. Inoiz edo behin, beharbada, axolagabezia azalduko dute, baina aurka behintzat ez daude. Doktore tesia irakurtzeko Madrilera joan nintzenean, norbaitek esan zidan Epaimahaiko katedradunetako bat, Federico de Castro jauna, ez zettorrela nire ideiekin bat. Baina nik argi neukan defendatu behar nuen tesia nirea zela, ez Castorena. Gizon hau Epaimahaiko kidea bakarrik ez, baizik eta ponentea ere bazen. Oso gizon ikasia zen. Kontua da glosa bat idatzi zuela, ia-ia nire tesiaren defentsa egiten zuena, adieraziz nire iritzia eta berea ez zetzozela bat, baina, halere, bere hurrengo lanetarako kontuan hartuko zuela nire tesia. Azkenean lagun ona izan nuen Federico de Castro. Zein ondorio atera genezake kontakizun honetatik? Egia aurretik daramagunean, edonora joan gaitzkeela.

Beste alde batetik, nik uste dut badugula harrobia. Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusia utzi ondoren Deustuko Unibertsitatean irakasten ibilitako azken bi urteetan oso harreman ona izan nuen ikasleekin, beste edozein ikasturtetan baino hobea. Nik konfiantza osoa dut gaur egungo gazteengan, lehenagokoengan neukan bezala. Badirudi batzuek egunkarietako gertaeren atalean agertzen diren gazteak baino ez dituztela ikusten, baina bestelako euskal gazteria on bat ere bada, nire konfiantza osoa merezi duena.

## 14.

Foru Zuzenbideaz bakarrik ez; Europar Zuzenbideaz ere arduratu zara azkenaldian...

Europar Zuzenbidearekin, arduratu baino gehiago, kezkatu egiten naiz. Batasuna lortu nahian gabilitza, baina ez dakit elkar ulertzeko behar adina ahalegin egiten ari ote garen.

Europako sistema guztiak antzekotasun handiak dauzkate, Hungariakotik hasi eta Portugalekora bitarteko guztiak. Neurri handiagotan edo txikiagoan, denek jaso dute Europako *ius commune* izandako Zuzenbide Erromatarren eragina, eta Zuzenbide germaniarrarena ere bai. Paradoxikoa den arren, European gehien erromani-zatu zen herrialdea Alemania da. Eta sistemarik original eta ezberdinena Ingalaterrakoa da, han Zuzenbidea epaileek egiten dutelako, eta, gainera, ez daukatelako kodifikaziorik. Baina, hala ere, denek antzekotasun handiak dauzkate.

Europak zailtasun handiak izango ditu bere Zuzenbidea kodifikatzeko, baina, edonola ere, helburu hori euskal Zuzenbidea zehatz-mehatz definitzeko eta gure instituzioak gutizia batengatik indargabetuta ez gelditzeko beste arrazoi bat da.

## 15.

Zer irizten diozu gaur egungo legegintzaren kalitateari?

Askotan irakurri dut, eta plazer handiz gainera, Gipuzkoako Foruen aitzinsolasa (1919ko edizioa). Eta bertan esaten da legeak, eragin-korrek izateko, gutxi, argiak, laburrak eta zuzenak izan behar dutela. Norbaitek esan zuen gaur egun "beherako legislatiboa" daukagula. Lege berri gehiegi egiten dira. Politikariek nahi bezainbeste sortzen dituzte, eta gero, askotan, lan ederrak ematen dizkigute esanahia ulertzeko.

Legeak, hedadura handikoak direnean, gutxitan izaten dira argiak. Epaile nintzenean jabetu nintzen epaiak zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta ulergaitzagoak izaten zirela. Gaur egungo legeak oso gutxitan izaten dira laburrak. Gaia ondo baino hobeto ezagutzen duena bakarrik da gauzak hitz gutxitan azaltzeko gai. Baina legegileak ez baldin badu pentsatzeko eta gogoe-ta egiteko tartetxoren bat hartzen, segur aski testu luze eta aspergarriz beteko du legea, eta, horrela sortutako legeak (bulkada baten ondorioz, edota legegilearen gutizia modura, adibidez), normalean ez dira zuzenak izaten. Gainera, demokrazia modernoetan legegilea ez da Parlamentua izaten –hauetan, bederen, debateei esker hausnarketa pausatuak egin baitaitezke–, baizik eta Botere

## “ Euskal Herrian Kode Zibil bat egitea erokeria izango litzateke ”

Exekutiboko kide bat, legea Parlamentuari jaramonik egin gabe negoziatzen eta onartzen duena.

Ni demokrata porrokatua naiz. Nire ustez, herriak edo herritarren ordezkariak bultzatutako ekimenak, kazike edo buruzagienak baino askoz hobekak izaten dira. Kode Zibilari buruz nahi adina esan daiteke, baina argi dagoena da oso gaztelania ona darabilela eta oso definizio zehatzak ematen dituela. Eta aitortu beharra dago ia ez duela inolako arazorik sortu aplikatzeko orduan. Errentamendua, adibidez, lau artikulutan besterik ez zuen arautzen; eta, aldiz, Hiri Errentamenduen Lege zaharrak, hainbeste artikuluekin, zenbat eta zenbat liskar sortzen zituen!

## 16.

Nola igarotzen dituzu gaur egun zure egunak?

Aisialdirako tarte bat hartzera behartu dut nire burua. Lehendabizi, ordu bat edo bi Bilboko kaleetan paseatzen ematen dut. Kafe bat hartu, lagunak ikusi, eta, noizean behin, elkarrizketaren batean sartzen naiz –ahal dela, patologia medikuei buruzkoa ez den batean–. Izan ere, gutxi jan eta edateko agintzen dizutenean, eta zentzumenak ia itzalita daukazunean, elkarrizketa on batean parte hartzea –jende bizkorraz inguratuta batez ere– opari zoragarria da. Gero okindegira eta frutategira joaten naiz, nire emazteak zailtasun handiak dauzkalako mugitzeko. Irakurtzen ere asko entretenitzen naiz; sarritan berrirakurtzen ditut etxean dauzkadan liburuak, ia gehienak Historia, Filosofia eta, jakina, Zuzenbideari buruzkoak. Musika ere asko gustatzen zait, eta askotan jartzen naiz musika klasikoaren DVDak entzuten. Eta ordenagailuarekin jolasean ere aritzen naiz –lanean aritzen naizenik ez dut esango, jornalik ez daukat-eta!–. Ordenagailuz egin ditut Zuzenbidearen Euskal Akademiari buruzko lanak –lanak edo denbora-pasa–. Eta, bestetik, telebistari begira nagoela bururatzen zaizkidan fantasiak idatzi egiten ditut. Institutuan izan nituen irakasleek golestu egiten zuten nire irudimena.

## 17.

Zure idazkiak ikusi besterik ez dago, beti txukun idazten saiatu zarela ohartzeko. Izan ere, gaur egungo legelariok nahiko txarto idazten dugu.

Alderantziz, nik gaizki idazten dudala uste dut. Horregatik, testu bat amaitutzat eman baino lehen, goitik behera berrirakurtzen dut. Testu bateko paragraforen batek orri oso bat edo gehiago hartzen duela ikusten dudanean, dardarka hasten naiz. Auzitegien lehenagoko epaiak oraingoak baino askoz ere ulergarriagoak ziren. Auzitegi Gorenak 1931n emandako epaien bildumari begirada bat bota orduko –urte horretan hasi baitzen Aranzadi argitaratzen–, erraz ikus daiteke epaiak, asko jota, orri bateko luzera izaten zutela.

Epaiak nintzen garaian buruz daukadan oroitzen ederretenakoa, magistratu bat ordeztu behar izan nuenekoa da. Entzutegiko presidentek esan zidan auzi bat oso atzeratuta zihoala, eta konponbidea lehenbailehen eman beharko zitzaioela. Oinordetza bati buruzko auzi bat zen, zazpi pieza eta milaka orritakoa. Alderdiak hamabi eskaera egiten zituzten, baina nik, gauzak laburtzeko, eskaera bakoitzari kontuan hartuzko bakar bat eskaintzea erabaki nuen –aldi hartan, funts juridikoa kontuan hartuzkoak izaten ziren–. Auzia egun gutxitan ebatzi nuen, eta alderdiak helegin egin zuten epaia, Burgosko Entzutegi Lurraldetarrean. Nire harridurarako, Burgosko Entzutegiak nire kontuan hartuzkoak ontzat eman bakarrik ez, baizik eta, gainera, testuaren argitasun eta zehaztasuna golestu zituen, eta nire espedientearen ohar laudatzaile bat jartzea agindu zuen.

Hernández Gil-ek behin esan zidan argi eta garbi ulertu den guztia, argi eta garbi azal daitekeela. Gauzak argi azaltzen ez badira, ongi ulertu ez direlako izango da behar bada.

Elkarrizketatzailea: José Miguel Gorostiza  
Itzultzailea: Koro Garmendia

